

HASIERAKO PRESTAKUNTZA EGIAZTATZEN DUEN LANBIDE-GAITASUNAREN ZIURTAGIRIA LORTZEKO AZTERKETA. ZIURTAGIRI HORI BEHARREZKO DA C1, C1+E, C, C+E, D1, D1+E, D ETA D+E KATEGORIETAKO GIDABAIMENA IZATEA ESKATZEN DUTEN IBILGAILUAK BIDE PUBLIKOETAN GIDATZEKO. ARIKETA EGITEKO JARRAIBIDEAK.

IRAKURRI ARRETAZ JARRAIBIDE HAUEK:

MATERIALA

Hau eraman behar da:

- NANA, AIZ, pasaporte edo gidabaimena. Epaimahaiak aretorako sarreran jarriko duen mahaian utzi beharko da, datuak hartzeko, eta mahaian egon beharko da azterketak dirauen bitartean
- Boligrafo urdina edo beltza, tinta likidoa ez duena.
- Zuzentzaile lehorra, 4,2 mm-ko zabalerakoa, «Refill Roller» motakoa

AZTERKETA-ORRIA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

- Datu pertsonalak bete behar dira: Lehen abizena, bigarren abizena eta izena, letra larritz.
 - Azterketaren eguna: 2026ko azaroaren 4a.
 - Plaza edo kategoria: Hasierakoa, salgaiena edo bidaiariena, eta sustapena, salgaiena edo bidaiariena
 - Eredua: Ez da ezer adierazi behar. Eredua bakarra dago.
- Eskuineko laukian NAN edo AIZ zenbakia idatzi behar da, argi, eta NANaren edo AIZren zenbaki bakoitzari dagokion borobila bete behar da dagokion zutabean.

ADIBIDEA:


Eredua / Modelo

A
B
C

*honela markatu
marque así*



*honela ez markatu
asi no marque*



**NAN Adibidea
Ejemplo DNI**

NAN/DNI

0 6 8 9 4 6 3 0										R	
0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	A	B
1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	C	D
2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	E	F
3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	G	H
4	4	4	4	4	4	4	4	4	4	I	J
5	5	5	5	5	5	5	5	5	5	K	L
6	6	6	6	6	6	6	6	6	6	M	N
7	7	7	7	7	7	7	7	7	7	O	P
8	8	8	8	8	8	8	8	8	8	Q	R
9	9	9	9	9	9	9	9	9	9	S	T
X										U	V
Y										W	X
Z										Y	Z

AIZ izanez gero, lehenengo zutabean X, Y edo Z jarri beharko da, AIZren hasierako letra zein den kontuan hartuta.

Azterketa-orria betetzean okarren bat eginda ere, jarraitu behar da gainerako erantzunak



emandako inprimakian markatzen, eta txarto emandako erantzuna zuzentzaile lehorrarekin ezabatu beharko da.

Azterketa-orria autokopiatzekoa da. Jatorrizko orriak baino ez du balioa. Erantzun-orriaren kopia informaziorako baino ez da. Bertan agertzen diren datuak ez dira lotesleak epaimahaiarentzat.

AZTERKETA MOTAK:

Bi proba-mota egingo dira: Hasierakoa (salgaiak edo bidaiariak) eta sustapenekoa (bidaiariak eta salgaiak).

Hasierako modalitatean, azterketak test motako 100 galdera ditu, gehi erreserbako beste hiru, galderaren bat baliogabetzen bada haren ordeztu erabiltzeko.

Sustapeneko modalitatean, azterketak 25 galdera ditu, gehi erreserbako bat.

Galdera bakoitzak lau erantzun ditu aukeran, baina bakarra da zuzena. Erantzun zuzen bakoitzak puntu bat balio du, eta txarto erantzundako galdera bakoitzeko 0,5 puntu kenduko dira.

Ez da punturik emango edo kenduko erantzun gabeko galderengatik edo erantzun bat baino gehiago dituztenengatik.

Azterketa normala gainditzeko, guztira lortu ahal diren puntu guztien (50) erdia lortu behar da gutxienez. Kopuru hori 12,5 puntu izango da sustapeneko azterketan.

Erantzun zuzenen txantiloak eta azterketaren behin-behineko emaitzak azterketa egin eta hurrengo astean argitaratuko dira bizkaia.eus web-orrian.

AZTERKETAREN GARAPENA

Azterketa **bi ordukoa** izango da **LGZren** hasierako modalitatean, eta **ordu erdikoa** sustapeneko modalitatean.

Probak dirauen bitartean:

- Proba egiten den lokal edo aretoan ezin izango da eduki edo erabili gailu edo baliabide teknologikorik, eta sakelako telefonoa itzalita egon beharko da.
- Igarotako denboraren berri emango da. Epaimahaiak aldian-aldian ohartaraziko du zenbat denbora igaro den.
- Azterketa-eremura sartu ondoren, ezin izango da bertatik atera azterketa entregatu arte.
- Azterketariak ezin dira inola ere altxatu proba egiten ari diren lekutik. Zerbait behar badute, epaimahaikideei edo zaintzaileei jakinaraziko diete, besoa jasota. Hala egingo dute azterketa amaitzen dutenean ere.
- Ariketa egin bitartean, erabateko isiltasuna egon behar da. Desegoki jokatzek edo besteak molestatzek azterketa-gelatik kanporatzea ekarriko du.
- Azterketak dirauen bitartean, gauza hauek baino ezin izango dira eduki mahai gainean: azterketaren enuntziatua, erantzuteko emandako orriak, jarraibide-orria, boligrafoa, zuzentzailea eta NANA, pasaporte edo gidabaimena.

Goian adierazitako baldintzak betetzen ez dituen azterketaria berehala kanporatuko dute



probatik.

BERTARATZE-ZIURTAGIRIAK

Azterketara joan eta bertaratu izanaren egiaztagiria behar dutenek azterketa aurkeztean eskatu beharko dute.

- Azterketa amaitu ondoren, azterketariek eserita geratu beharko dira, baimena eman arte epaimahaiaren mahaira joateko azterketa ematera.
- Azterketari bakoitzak kopia eta jatorrizkoa bananduko ditu, eta, jatorrizkoa eman eta gero, galderen liburuxka, jarraibideak eta kopia (orri horia) eraman ahal izango ditu.

EPAIMAHAIKO IDAZKARIA